

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2018KO IRAILA


Euskal AEko industria-jarduera %2,0 gehitu zen 2018ko irailean

Industri Produkzioaren Indizeak %2,1eko gehikuntza eduki du 2018ko lehen bederatzi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2018ko irailean, lan-egutegiko termino homogeneoetan %2,0 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2017ko hil beraren aldean. 2018. urteko lehen bederatzi hiletan %2,1eko hazkundera gertatu da, 2017ko aldi beraren aldean.

Aurreko hilarekin alderaturik, 2018ko abuztua, Euskal AEko industri produkzioan ez da aldaketarik izan (%0,0), behin urtaroen eragina zuzendurik.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko iraileko indizearen bilakaerak, 2017ko irailekoaren aldean, emaitza ezberdinak dakartza sektore industrial handietan. *Ekipo-ondasunak* %8,1 gehitu dira, *Energian* ez da aldaketarik izan (%0,0) eta *Bitarteko ondasunak* %1,6 egin dute behera. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %0,1 jaitsi dira. Horien barnean, *Iraunkorrak* %1,0 igo dira eta *Ez-iraunkorrak* %0,5 jaitsi.

2018ko iraileko hil arteko aldakuntza ere, 2018ko abuztuaren aldean, oso bestelakoa izan da industri talde handietan. *Ekipo-ondasunak* %4,6 hazi dira eta *Energia* %0,1, baina *Bitarteko ondasunek* %2,6 egin dute behera eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %0,2 jaitsi dira, zeren *Iraunkorrak* %0,4 jaitsi baitira eta *Ez-iraunkorrak* %0,2.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak izan dituztenak urte artean hauek izan dira: *Makineria eta ekipoa*, %6,1ekin; *Garraio-materiala*, %5,4rekin; eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak*, %4,3rekin.

Kontrako zentzuan, jaitsi egin dira *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %2,8ko jaistearekin; *Metalurgia eta metalezko produktuak*, %2,1ekoarekin; eta *Zura, papera eta arte grafikoak*, %1,3koarekin.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-2,1
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-2,8
09 - Kautxua eta plastikoak	0,3
13 - Makineria eta tresneria	6,1
14 - Garraio-materiala	5,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	4,3
12 - Material eta tresneria elektrikoa	2,9
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,3

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka, iraileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Gipuzkoan, %6,2ko igoerarekin; Bizkaian ez da aldaketarik izan (%0,0), eta Araban jaitsi egin da %1,8.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Iraila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Ira2018 / Ira2017	A(Ira2018) / A(Ira2017)(*)	Ira2018 / Abu2018	Abu2018 / Uzt2018
Indize orokorra				
Euskal AE	2,0	2,1	0,0	4,1
Araba/Álava	-1,8	2,3	0,6	-2,3
Bizkaia	0,0	-1,3	-0,4	3,4
Gipuzkoa	6,2	5,6	0,1	8,5
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,1	0,0	-0,2	0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	1,0	-3,6	-0,4	5,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,5	1,4	-0,2	-0,9
Ekipo-ondasunak	8,1	4,6	4,6	4,9
Bitarteko ondasunak	-1,6	1,2	-2,6	2,1
Energia	0,0	0,5	0,1	0,5

(*) 2018ko urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62